

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAMAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea etxeak urez hornitzearen eta hondakin urak araztearen tasa arautzen duen ordenantzaren tarifen aldaketa

Administrazio batzar honek, 2019ko ekainaren 27ko bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta hondakin urak araztearen tasa arautzen duen zerga ordenantzaren tarifak aldatzeko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da. Horregatik, testua oso-osorik argitaratzen da, indarrean sar dadin urriaren 1ean, honako hauek ezarritakoaren ondorioetarako: Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikulua.

XVII. Etxeak edateko urez hornitzearen tasa arautzen duen zerga ordenantzaren eranskina

Hartune berriaren tasa: 1.000,00 €

Etxeko erabilera:

Kuota finkoa	10,00 € (seihilekoa)
Lehenengo tarte: 90 m ³ edo gutxiago	0,20 €/m ³
Bigarren tarte: 91-170 m ³	0,25 €/m ³
Kuota > 171 m ³	0,30 €/m ³

Beste erabilera batzuk (industria, nekazaritza, publikoa):

Kuota finkoa	10,00 € (seihilekoa)
Kuota aldakorra	0,25 €/m ³

XII. Hondakin urak tratatu eta arazteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren eranskina

Hartune berriagatik ordaindu beharreko tasa: 400,00 €

Erabilera guztiak:

Kuota finkoa	15,00 € (seihilekoa)
--------------	----------------------

Lezama, 2019ko irailaren 20a

Lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ZUBIZARRETA UGARTE